



Joxe Mari Berasategi itzuli du euskarara H.G. Wellsen *Hormako atea eta beste ipuin batzuk* liburua. Irudian, itzultzailea, liburuaren ale batekin. JON URBE / FOKU

Igarkizun eta kezka bete ipuin

Joxe Mari Berasategi euskarara ekarri du Herbert George Wellsen 'Hormako atea eta beste ipuin batzuk' liburua • Zortzi ipuinek osatzen dute bilduma, eta Elkarrek argitaratu du

Aitor Biain

«Bisionario bat izan zen». Hitz horiekin deskribatu du Joxe Mari Berasategi Herbert George Wells idazle eta filosofo ingeles ezaguna. Fantasiako munduen sortzaile eta zientzia fikzioaren aitzindarietako bat izan zen Wells XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, haren lanek fantasia zientifikoaren, teknologiaren garapenaren eta mundu utopikoen iragarpen profetikoak jaso baitzituzten. 1894an hasi zen ipuinak idazten, eta 1911n plaza-ratu zuen haien aukeraketa bilduma bat: *Hormako atea eta beste ipuin batzuk*. Euskarara ekarri du orain liburua Berasategi, eta Elkarrek argitaratu du.

Zortzi ipuinek osatzen dute liburua, eta Wellsen gaztaroan idatzitakoak dira gehien-gehienak: *Hormako atea* –liburuari izena ematen diona–, *Izarra*, *Armagedonen ametsa*, *Konoa*, *Ilartargia*–

ren fabula bat, *Diamantegilea*, *Dinamoen jainkoa* eta *Itsuen herrialdean*. Berasategi azaldu duenez, idazlearen mundu ikuskeraren erakusgarri dira denak, askotariko gaiak eta giroak jorratzen dituztenak, eta «bikain» erakusten dutenak haren idazteko eta sortzeko trebetasuna.

Ingelesezko idazleen artean «eraginik handiena» izan duteenak bat da Wells, itzultzaileen hitzetan. Eta horren adibide dira, hain zuzen, haren ipuin eta eleberriek izan dituzten irakurle aldeak. Haren nobela zientifiko nagusiak, esaterako, *The Time Machine* (1895) eta *The War of the Worlds* (1898), etenik gabe inprimatu izan dira. «Idazle askoren irudimena itxuratzen lagundu du, Orwellekin hasi, Borgesekin segü, eta zientzia fikziozko idazle guztienganaino». Halaber, film asko egin dira haren nobeletan oinarrituta.

Izan ere, bereziki etorkizuneko

iragarpenengatik da Wells idazle ezaguna. Haren istorioetan azaltzen baitira gerora errealitate bilakatu diren elementu eta gertaerak asko, hala nola hegazkina, tankea, bidaia espazialak, bomba atomikoa, satellite bidezko tele-



Ipuinetan, giza izaeraren gainean eta gizarte antolamenduaz zituen kezka nabaritzen dira»

Joxe Mari Berasategi
Itzultzailea

bista, Internet, Ilargirako hegaldiak eta gizarte zibilaren aurkako airetiko bonbardaketak. Denboran bidaiatzeari, estralurtarren inbasioari eta botere jainkotiarrez hornituriko gizakiei buruz ere idatzi zuen, gainera.

Berasategi, ordea, haren

«ikuspegi sozialean» egin du azpimarra: «Maiz aitortzen zaizkio egin zituen profetia zientifikoak, baina asko ez dira ohartzen zer gogor egin zuen borroka bere iragarpen sozialak onartuak izan zitezkeen». Bere garaiko gertakariaren eraginez –mende aldaketa, bi mundu gerrak...–, munduaren gobernabideari buruz ere jardun baitzuen berelanean. «Ideia utopikoak» izan ziren horietako asko, mundu osoan estatu bakar bat ezartzearena, kasurako. Haren ideien arabera, gobernu orokorrak bermatuko zizkion norbanakoari hezkuntza bat behar bezain ona –bereziki zientzian–, lan aspetegarri bat eta bitzita pribatua gozatzeko askatasuna.

«Lehen Mundu Gerrako katasastrofak erakutsi zuen porrotarekin etsita, mundua berriz hezteko proposatu zuen Wellsen», azaldu du Berasategi. Bada, Wellsen eragina argia da Nazio Batuen Erakundearen 1948ko Giza Esku-

bideen Aldarrikapen Unibertselean.

Berasategiren arabera, zientzialari gisa izan zuen prestakuntza du oinarria Wellsen pentsamendu sozialak. Eta haren ikuspegi politikoa zeharo lotuta zegoen garai hartako teknologiarekin: hain zuzen, bere iragarpenengatik sona eman zion horrikin. Izan ere, heziketa zientifiko horren bultzadan idatzi zituen bere libururik ezagunenak. «Ipuinetan, halere, dagoeneko nabaritzen dira haren kezka sozialak ere, giza izaeraren gainekoak eta gizarte antolamenduaz zituenak».

Gozamenetik abiatuta

Alemanez idatzitako liburua euskaratu izan ditu Berasategi azken urteetan, batez ere. Peter Handkeren *Atezainaren larria penalti-jaurtiketan* itzuli zuen iaz, esaterako, eta Leo Perutzen *Gauetz harrizko zubiaren azpian* 2019an, Jesus Mari Olaiola *Txiliku*-rekin batera. Azken horren itzulpena amaitu berritan, «ustekabe» heldu zitzaion Wellsen ingelesezko ipuinen bilduma eskuetara. «Entzuna neukan H.G. Wellsen izena, baina apenas neukan beretik ezer irakurrita, eta asko gustatu zitzaidan». Inolako asmo jakinik gabe hasi zen bere kabuz itzultzen, «gozamen huts».

Berasategi azaldu du, ordea, itzulpena ez dela lan erraza izan, Wellsen ipuinek idazkera «argi, zehatz eta landua» dutelako. «Erronka izan da, bereziki, berak daukan ingeles tradizio aspaldiko hori eta sinpletzat jotzen diren gauza asko itzultzea, agian oraindik euskaraz gehiegi landu gabe ditugulako», nabarmendu du itzultzaileak. Deskribapen fisikoak –«koloreak eta»– eta mundu industrialak girotzeko makinek eta labe garaiek egiten dituzten «hotsak, zaratak eta burrunbak» jarri ditu adibidetzat. «Xehetasun horiek denak euskaraz ematea niri behintzat ez zait erraza egin», aitortu du Berasategi. «Baina gozatu egin dut».

Xabier Mendiguren editoreak azken urteetan euskarazko itzulpenetan egin den lana nabarmendu du. «Itzultzaileen artean gero eta testu hobekien egiten dira, eta hor badago azulaz bat; nik hala sumatzen dut behintzat». Bada, bide horren lekuko izan da Berasategi, eta, adierazi duenez, «faktore askok» eragin dute hobekuntza hori, hala nola hiztegi eta antzeko tresnetan izan den bilakaerak, euskarazko batzuk eta herriarren alfabetatzeak.